Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko ekainaren 30a, astelehena — 123 — Lunes, a 30 de junio de 2025

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

*Erabakia, UPV/EHUko errektorearena, zeinaren bidez obrak eraikitzeko eta ustiatzeko Aurreproiektua jendaurrean jartzen duena eta, hala badagokio, onartzen duena. UPV/EHUren Gipuzkoako campusean unibertsitate egoitza berria proiektatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko obra publikoen emakida.*

AURREKARIAK

*Lehenengoa.* Espedientean jasota dagoen bezala, dagoeneko eginda daude bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlana egiteko eta azaltzeko izapideak, bai eta kostuen egituraren eta prezioak berrikusteko sistemaren proposamena egiteko eta horri buruzko txostena egiteko izapideak ere.

Sinatu nahi den obra-emakidako kontratua prestatzeko azken egintza gisa, SPKLren (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). 248. artikuluaren 3. apartatuan jasotzen da obrak eraikitzeko eta ustiatzeko aurreproiektua jendaurrean jartzeko betebeharra.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* SPKLren 248.3 artikuluak honela dio, hitzez hitz:

«3. Aurreproiektua jendaurrean jarriko da hilabeteko epean, eta epe hori luzatu ahal izango da, konplexutasuna delaeta. Horrela, egoki iritzitako ohar guztiak egin ahal izango dira obren kokapenari eta ezaugarriei buruz, bai eta herri-onurako adierazpenari buruzko beste edozein inguruabarri buruz ere. Halaber, Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako organoei helaraziko zaie aurreproiektua, txostena egin dezaten. Jendaurreko informazioaren izapide hori baliagarria izango da, halaber, ingurumen-inpaktuaren azterketari dagokiona betetzeko, ingurumen-inpaktuaren adierazpena nahitaezkoa den kasuetan eta aurretik izapide hori egin ez denean, aurreko artikuluaren 6. apartatuan jasotako kasua delako.»

*Bigarrena.* Artikulu berak honako hau aurreikusten du hurrengo paragrafoan: «Administrazio emakidatzaileak obren aurreproiektua onartuko du, egindako alegazioak kontuan hartuta eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren preskripzioak erantsita, eta onura publikoaren aitorpen zehatza eskatuko du, nahitaezko desjabetzeari buruzko legerian aurreikusitako ondorioetarako.»

*Hirugarrena.* Jendaurreko tramitearen gauzatzeari dagokionez, honako hau xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 83. artikuluak:

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

*Resolución del rector de la UPV/EHU por la que somete a información pública, y, en su caso, se aprueba el Anteproyecto de construcción y explotación de las obras. Concesión de obra pública relativa a la redacción del proyecto, construcción y posterior explotación de una nueva residencia universitaria en el campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU.*

ANTECEDENTES

*Primero.* Tal y como consta en el expediente, ya han sido realizados los trámites relativos a la elaboración y exposición del estudio de viabilidad económico financiera, así como la elaboración e informe de la propuesta de estructura de costes y sistema de revisión de precios.

Como último acto preparatorio del contrato de concesión de obras que se pretende suscribir la LCSP (Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014) recoge en el apartado 3 de su artículo 248 la obligación de someter a información pública el anteproyecto de construcción y explotación de las obras.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* El artículo 248.3 de la LCSP es del siguiente tenor literal:

«3. El anteproyecto se someterá a información pública por el plazo de un mes, prorrogable por idéntico plazo en razón de su complejidad, para que puedan formularse cuantas observaciones se consideren oportunas sobre la ubicación y características de las obras, así como cualquier otra circunstancia referente a su declaración de utilidad pública, y dará traslado de este para informe a los órganos de la Administración General del Estado, las Comunidades Autónomas y Entidades Locales afectados. Este trámite de información pública servirá también para cumplimentar el concerniente al estudio de impacto ambiental, en los casos en que la declaración de impacto ambiental resulte preceptiva y no se hubiera efectuado dicho trámite anteriormente por tratarse de un supuesto incluido en el apartado 6 del artículo anterior.»

*Segundo.* El mismo artículo prevé en el apartado siguiente que «La Administración concedente aprobará el anteproyecto de las obras, considerando las alegaciones formuladas e incorporando las prescripciones de la declaración de impacto ambiental, e instará el reconocimiento concreto de la utilidad pública de esta a los efectos previstos en la legislación de expropiación forzosa.»

*Tercero.* Respecto a la materialización del trámite de información pública, el artículo 83 de la LPCAC (Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas) prevé lo siguiente:

EK\CV GAO-I-2025-04692

«1. Ebazpena eman behar duen organoak, hala eskatzen badu prozeduraren izaerak, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat izatea.

2. Horretarako, iragarki bat argitaratuko da dagokion aldizkari ofizialean, edozein pertsona fisiko edo juridikok aztertu ahal izan dezan espedientea edo erabakitzen den espediente-partea. Iragarkian, adierazi behar da erakustaldia non egingo den, eta hala eskatzen duten pertsonen eskura jarri beharko da, bitarteko elektronikoz, dagokion egoitza elektronikoan. Alegazioak egiteko epea ere zehaztu behar du iragarkiak, inoiz ez hogei egun baino gutxiagokoa.»

*Laugarrena.* Ebazpen hau emateko eskumena UPV/EHUko errektoreak du, UPV/EHUren Estatutuetako 230.1 artikuluan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpeneko I. eranskineko 4. paragrafoko 4. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz (errektorearen eskumenak eskuordetzeari eta Gobernu Taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteari buruzko Ebazpena, 2025eko otsailaren 19ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 34. zk.).

Horregatik guztiagatik, Errektoreak

ERABAKI DU EZEN

*Lehenengoa.* Obrak eraikitzeko eta ustiatzeko aurreproiektua hilabetez (1) jendaurrean jartzea.

Iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

Epeak iraun bitartean, dokumentazioa interesdun guztien eskura egongo da Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan, baita kontratatzailearen profilean ere. Era berean, eskaria egiten duen ororen esku egongo da bide elektronikoen bitartez ere, UPV/EHUren egoitza elektronikoan.

*Bigarrena.* Obrak eraikitzeko eta ustiatzeko aurreproiektua onestea, baldin eta jendaurrean egoteko epea igarota inork alegaziorik aurkeztu ez badu edo, aurkeztutako alegazioak aztertu eta arrazoitutako ebazpena eman ondoren, onartezinak direla uste bada.

UPV/EHUko 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakian aurreikusitakoaren arabera.

Leioa, 2025eko ekainaren 20a.—Joxerra Bengoetxea Caballero, errektorea. (4692)

«1. El órgano al que corresponda la resolución del procedimiento, cuando la naturaleza de éste lo requiera, podrá acordar un período de información pública.

2. A tal efecto, se publicará un anuncio en el Diario oficial correspondiente a fin de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar el expediente, o la parte del mismo que se acuerde. El anuncio señalará el lugar de exhibición, debiendo estar en todo caso a disposición de las personas que lo soliciten a través de medios electrónicos en la sede electrónica correspondiente, y determinará el plazo para formular alegaciones, que en ningún caso podrá ser inferior a veinte días.»

*Cuarto.* Es competente para dictar esta Resolución el Rector de la UPV/EHU, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 230.1 de los Estatutos de la UPV/EHU y con lo previsto en el apartado 4.º, punto 4 del anexo I de la Resolución de 30 de enero de 2025, del Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre delegación de competencias del Rector y estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su Equipo de Gobierno (*Boletín Oficial del País Vasco* núm. 34 de 19 de febrero de 2025).

Por todo ello, este Rector

RESUELVE

*Primero.* Someter a información pública el anteproyecto de construcción y explotación de las obras por el plazo de (1) mes.

El inicio del cómputo del plazo será desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Durante dicho plazo la documentación se encontrará a disposición de las personas interesadas en las dependencias del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, así como en el Perfil del Contratante. Igualmente estará a disposición de las personas que lo soliciten a través de medios electrónicos en la sede electrónica de la UPV/EHU.

*Segundo.* Aprobar el anteproyecto de construcción y explotación de las obras bajo la condición suspensiva de que pasado el plazo del trámite de información pública no se hayan presentado alegaciones, o de recibirse, tras su análisis y resolución motivada se estime que no resultan aceptables.

De conformidad con lo previsto en la Resolución de la UPV/EHU de fecha 30 de enero de 2025.

Leioa, a 20 de junio de 2025.—El rector, Joxerra Bengoetxea Caballero. (4692)